

# SARRERA

Mutrikuko institutuko 2. batxilergoko ikasleak gara, eta gure enpresak IMAB du izena. Gure izenen lehenengo hizkitik atera genuen enpresaren izena, Itziar, Manex, Alain eta Beñat.

Enpresa honen helburua, unibertsitatean ikasi nahi duten gazteei pisua aurkitzea eta beraien etxeko gela alokatzen jarri nahi duten pertsonekin batzea da. Ideia hau, gu 2. batxilergoan gaudelako bururatu zitzaigun, hurrengo urtean agian gure herritik kanpo ikasi beharko baitugu. Gainera, gazte askok izaten dituzte arazoak beraien herritik kanpo etxebizitza bat aurkitzeko eta horretan oinarritu gara batez ere, enpresa sortzerakoan.

Lau pertsona gara IMABen sortzaileak, baina ziurrenik pertsona gehiago kontratatu beharko ditugu, adibidez webgunea sortzen norbaitek lagundu behar gaitu.

Eta azkenik, IMAB enpresaren ezberdintasuna da, dirurik gastatu nahi ez duten pertsonentzat etxebizitzaren jabeari lagunduz etxeko eginbeharrak eginda gela batean geratu ahal direla. Gazte askok ez dute diru asko eta horregatik bururatu zitzaigun beraiantzako ordaintzeko metodo ezberdin hau.